

Pripublikarrak ez da rock-talde bat

María Mur Dean, Pripublikarrak

María José Belbel-ek musika eta feminismoak lotzen dituen proiektu honetan Pripublikarrak bezala parte hartzeko proposatu zigunean, gure lehenengo erreakzioa izan zen esatea ez daukagula zerikusirik musikarekin, nahiz eta egia den Arakisek Beatriz Preciadori Pripublikarrak gisa aurkeztu gintuenean, berak ziurtzat jo zuela musika-talde bat ginela. Grazia egin zigun izenak edo guk edo auskalo zerk guk musika-talde bat ematen dugula proiektatu izanak. Behin baino gehiagotan galdetu diogu gure buruari zein musika mota egingo lukeen Pripublikarrak taldeak... Baina nahiz eta ez dugun abesten ezta inolako koreografiarik egiten, egia da musika Pripublikarrak-en proiektuetan hasiera batean eman lezakeena baino garrantzitsuagoa izan dela.

Pripublikarrak Remedios Zafraren Netianak, Dona Haraway-ren Cyborg eta Rosi Braidotti-ren Subjektu Nomada mitoen herentzia apal gisa jaio eta hasi zen patriarka-sistemaren dekonstrukzioan. Nahiz eta azkenean emakumeen talde bat bihurtu den, beren prestakuntza eta diziplina anitzeko zereginetik arte eta feminismoen inguruko proiektuak garatzen dituen, 2005ean kontzeptu bakun gisa sortu zen, baterako hausnarketa gisa, era kolektiboan jarrera pertsonalak nahiz sozialak berreraikitzeke jolas dialektiko gisa. Esanahi-esparru bat garatzen du, agerian jartzen duena publikoaren eta pribatuaren arteko atzeraelikadurari buruzko pentsaera, baita generoaren dekonstrukzioari buruzkoa ere, erreminta erregulatzaile gisa.

Pripublikarrak-ek ez du lehenago bizi, esperimentatu edo teorizatu ez den ezer asmatu edo aurkitu, ez du berria dena

dig me out

aldarrikatzen, baizik eta ekarpen ezberdinen koktel batez elikatzen da eta botaka gisa kanporatzen du arte garaikidetik, irudikapenaren moduak berak eta arte-sistema bera aztertuz.

Zentzu horretan, nahiz eta Pripublikarrak-en hasierako esparrua eta testuingurua artea izan zen, bere ekintza-esparrua zabaldu egin da, batez ere, beti egonezin, kubo zuritik salto egiten duen proiektu bakoitzean garantzen diren elkarlanei esker. Eta horrela sartu da musika Pripublikarrak-en lanetan, gurekin elkarlanean aritu diren musikaren profesionalen bitartez... baina ez da hori bakarrik... Autopsia zorrotz bat egiten badugu, ikusiko dugu izatez kultura-ekintzaren bi esparruek (arteak eta musikak) antzerako eztabaidak dituztela, eta horien aurrean Pripublikarrak-ek jarrera bat hartzen du.

Musikak jendearengan eragin handia du, arte garaikideak ez duena, eta horrek esan nahi du, era berean, industria garatuagoa duela eta, partekatutako ezegonkortasunen barruan, profesionalizazio handiagoa. Hala ere, bitxia da ikustea oraindik ere nolabaiteko mistizismoa dagoela abesten duenaren irudiaren aurrean, artean gertatzen den bezala. "Bere izaera asemantiko eta akontzeptualarengatik, musikak Guztiaren, Absolutuaren edo Ideiaren kontzeptuak adierazteko arte-adierazpen egokiena dirudi", dio Nuria González-ek Theodor Adorno-ren Musikari buruz lanari buruzko azterlanean.

Horrela, kantariak eta artistak nolabaiteko dohain jainkotiarra duten jenioak dira. Aleluia! Orduan "talentuak", gezur handi horrek, balio dutenen (aukeratutakoak, gehienak lan-baldintza kaxkarrak dituztenak, izan ere, badirudi arteak beren arima elikatzen

dig me out

duela eta ez dutela beste giza beharrik asetzeko beharrik, zeren, ez dezagun ahaztu, jainkoak dira) eta balio ez dutenen (gainerako guztiak) arteko ezberdintasunak adierazten ditu. Talentuak eta menderatze teknikoak ere ekintza artistiko bat dena eta ez dena adierazten dute. Horren aurrean Pripublikarrak-en lehenengo proiektuan, Optikak (www.optikak.org), ez da Pripublikarrak argazkiak ateratzen dituen, baizik eta ekintza artistikoa da dispositibo bat antolatzea, non 35 emakumek (terminoaren zentzurik zabalenean) beren eguneroko bizitzari argazkiak ateratzen dizkioten.

Izaki goren talentudunen ideia hori suntsitzeko, punkak "do it yourself" delakoa ekarri zigun. Honek produkzio moduak eta bitartekoak eskuratzeko eta jainkotasun pagano horiei sakratutasuna kentzeko aukera eskaintze du. Hori itzela da, baina kontuz, izan ere, orduan jende guztiak, dena egiten duen, denari buruz dakien eta denari buruzko iritzia ematen duen saiakera garaikide eta etengabe horretan eror gaitzke. Espainiako Rosa aukeratzeko bozkutzen da, Eurovisión, supermodelo... ikus-entzuleek erabakitzen dute... esaten digute ez dagoela etengabe parte hartzeko deia egiten dizun telebista bat baino gauza demokratikoagorik, eta orduan Norma Duval-ek bere oroimenak argitaratzen ditu. Zentzu horretan, zaila da ustezko talentu adituen meritokrazian edo "denok dakigu denari buruz" eslogan zahar horretan ez erortzeko batezbesteko puntu bat aurkitzea. Izan ere, nekez eman dezaket nire iritzia bihotz irekiko ebakuntza bat egiteko moduari buruz (), beraz, zergatik erabaki dezaket musikaren munduan aurrera egiten saiatzen den pertsona baten profesionaltasunari buruz, ideia izpirik ere ez dudanean?

dig me out

Pripublikarrak musikara gerturatu zen lehenengo aldia, hain zuzen ere, musika-hartzailea zen jendearen bidez izan zen, Optikak-en; bertan, 35 emakume hauek beren bizitzako alderdi batzuk literalki era grafikoan azaltzeaz gain, beraientzat garrantzitsua zen abesti bat eskatu zitzaien. Entzule horiek ez dira ez neutroak ezta ahistorikoak ere, eta beren egunerokotasunetatik beste pertsona batzuek konposatzen eta interpretatzen zituzten abestiak aukeratzen zituzten, baina hainbeste bereganatu zituzten, non beren soinu-banda propioa zirela erabaki baitzuten.

Musikara hurreratu ginen hurrengo aldia "Galleterak, oroimen bizia", (www.galleteras.net), proiektuaren bidez izan zen, Bilboko Udalaren enkargu baten emaitza gisa. Bertan, bere garaian Artiach izena zuen galleta-fabrika batean lan egiten zuten eta duten emakume talde bati ahotsa emateko bideo bat egin genuen, non bertan hauek beren eguneroko borrokak kontatzen dizkiguten. Bideoa osatzeko, existitzen zen edozein musika erabiltzea baino interesgarriagoa iruditu zitzaigun, hain zuzen ere, laburmetrai eta erdimetraien soinu-bandak garatzen lan egiten duen konpositore bat edukitzea, Aranzazu Calleja. Oro har, proiektu guztietan emakumeekin lan egiten saiatzen gara eta beti ordaintzen dugu (batzuetan sinbolikoki, aurrekontuaren arabera) egindako lanengatik. Emakume langileari buruz hausnartzen genuen proiektu honetan, funtsezkoa zen proiektuan bertan emakume profesionalek parte hartzea, gainera, kasu askotan, esaterako, Callejaren kasuan, nagusiki gizonezkoenak diren munduetan lan egiten dutela kontuan izanik. Eta horrek ez du esan nahi generoari lanen kalitateari baino garrantzi handiagoa ematen zaionik, hori baita jarrera honen aurrean eman ohi den erantzuna. Hobe bilatzea esan nahi du. Callejaren musika ezinhobeto egokitzen da bideoak transmititu nahi duen horretara eta

dig me out

hain garrantzitsua da, non beste testigantza bat bihurtzen baita. Proiektu honetan, halaber, DJ Baseline-en soinu-partaidetza ere izan genuen, antzinako Artiach fabrikaren barruan.

Ondoren, Sevillan, Rodríguez Fundazioak Zemos98-ren barrian komisariatutako "Panel de Control" erakusketaren barruan, "Shift ctrl" iruditik ihes egiten duen proiektu bat da, entzumenean jartzen du arreta, ez horrenbeste musikan, soinuan baizik. Kontua zen beldurra aztertzea, emakume askok hirian bizitzerakoan duten autokontrol-modu gisa, eta horretarako irrati-saio batzuk antolatzea erabaki genuen (Bilboko Tastas Irratia irrati librean eta Radio3-eko Fluido Rosa delakoan). Egokiagoa iruditu zitzaigun beldurra bezalako gauza inkontziente eta helduezina irudikatze soinua erabiltzea, irudiaren orde. Izatez, beldurrezko film guztietan dago eszenaren bat, non protagonista edo ikusleak ilunpetan geratzen garen, soil-soilik zarata arraroz inguratuta. Soinuak esanahiak barneratzeko eta irudi pertsonal eta propioak igortzeko gaitasuna du, gure irudimenari lan eginaraztekoa, irudiak ez duena, edo behintzat, neurri txikiago batean.

Idensitat arte-programaren barruan, "Femzine Manresa" proiektua, amaiera gisa kontzertu bat zuen gure lehenengo lana da: Anariren kontzertua, hain zuzen. Manresan, herri katalan hartan feminismoetan aritzen diren talde eta pertsonen arteko galdera eta erantzunen jolas gurutzatu bat irudikatzen zuen fanzine bat garatu genuen. Musika/fanzinearen arteko erlaziotik eta emakumea sortzaile gisa aldakarrikatuz, parte hartu zuten guztiei beren elkarlana eskertu nahi izan genien eta antzeko ildoetan lan egiten duten baina, aldiz, ezagutzen ez diren edo

dig me out

elkarlanean aritu ohi ez diren pertsonen artean bilera-une bat sortu nahi izan genuen.

Musikaren ekoizpenaren eta hedapenaren gaineko kontrola oraindik gizonezkoen ariketa den arren eta emakumeentzat zabalduen dagoen rola oraindik ere kontsumitzaileena den arren, Laura Viñuela Suárez-ek erabat gomendagarria den bere "La perspectiva de género y la música popular: dos nuevos retos para la musicología" lanean jasotzen dituen Simon Frith-en azterlanek kreditatzen duten bezala, guretzat garrantzitsua da, Anari bezala, musika-ekoizleak diren eta aldi berean nortasunezko kultura-eraikuntzen ekoizleak diren emakumeen presentzia nabarmentzea.

Gutako bakoitzarentzat, Anariren abesti eta hitzek eragina izan dute gure historia pertsonaletan. Beraz, Manresan edukitzea gure ustez bat zetorren genuen ideiarekin: kontzertu intimo bat, doakoa eta sarrera librekoa antolatzea, Manresako Bermell tabernan. Bertara oso entzule heterogeneoak joango ziren, proiektuan parte hartu zuten pertsonak bezala: 83 urteko Rosa Rius, La Columna Clitoriana-ko nerabeak, Mireia Marin gestalt terapeuta eta Grup d'homes contra el patriarcat gizon-taldea, besteak beste. Manresan proiektua funtsean beren hizkuntzan mugitu zen, katalanez, eta garrantzitsua iruditu zitzaigun gure hizkuntza partekatzea: euskara. Biziki maite ditut Zebra abestiaren hitzak: "nekez nau hainbeste aldatu /zebra naiz oraindik / lehen zuria arra beltzez / ta orain beltza arra zuriz..." eta kontzertuak oilo-ipurdia jarri zigun denoi, baita bere lana ezagutzen ez zutenei ere.

Azkenik, Nontzeberri kultura-webarekin batera egindako "Rolling Rolak" proiektuan izan du agian musikak presentzia handiena, baita esanahiak transmititzeko gaitasuna ere.

dig me out

"Rolling Rolak" generoen eta hauek izan ditzaketen irudikapenen eraikuntzaren azterketa bat izan da, eta bi formatu izan ditu on line (www.argazklik.com argazki-lehiaketa eta camara crossing argazki-katea) eta formatu bat off line ("Genero eta gorputz ekoizpenak" mintegi teorikoa). Lehiaketan parte hartzera bultzatzeko eta egon zitezkeen gai-ildoak adierazteko proposatutako gaietan lan egiten duten bost artista gonbidatu genituen eta hauen artean Cocorosie musika-taldeko Bianca Casady ekarri nahi izan genuen. Izugarri gustatzen zaizkigu Casady ahizpen abestiak eta zuzenekoak, baita genero-gaiei buruz egiten dituzten azterketak ere. Biancak berak komunikabideetan lesbianen presentzia aztertzen duen www.afeterellen.com web orriari emandako elkarrizketa batean dioen bezala: "My sexuality is explored in my work," Bianca said, "[but it's] more my gender than my sexual preference. It's really not about being gay or un-gay, it's about being yourself in a patriarchal, heterocentric, heteronormative, monotheistic world. It's always the changing question and answer, and it's the forefront of my work." Bianca Casady-k Vodoo-EROS taldearen barruan parte hartu du, problematika espezie artekora hedatzen da, eta izaki estralurtar berdexka bat aurkeztu dute, generoen diskurtsotik haratago.

Guztira, 30 herrialde baino gehiagotako 700 argazki-serietik gora dituen kontsulta-artxibo interesgarria bihurtu den argazklik.com lehiaketan bereziki gustuko dudan serie bat dago; hain zuzen ere, rock-ak bere publikoa diren gizonezko eta emakumezkoen artean eraiki dituen rolen gaiari buruzkoa dena. Luis Melón Arroyoren "Zoriontsuak al dira Rock and Rollaren alabak?". Lan honetan musikaren industriak emakumeari ezarritako groupie-aren rola aztertzen du. Beraz, Laura Viñuelak Simon Frith eta Angela McRobbie-ri eta beren "Rock and Sexuality" testuari buruz

dig me out

esandako hitzei berriro ere helduz, garrantzitsua da aztertzea ez rock-ak ideologia jakin bat artikulatzeko duen modua, rock-etik kanpo dagoena, baizik eta ideologia hori eraikitze duen modua. Horrela, nahiz eta kultura-diskurtsoak, konstruktua "unibertsal" gisa botere hegemonikoak erabiltzen dituen foucaultiar zentzuan, beste talde batzuek ere erabil ditzakete era subertsiboan kontranarratibaren eta ihauteri itxurako ospakizunen bitartez eredu alternatiboak sortzeko. Baina Laura Viñuelak ondo adierazten duen bezala, askotan azpikultura horiek erabat lotuta daude adinarekin eta, beraz, iragankorrak dira. Viñuelak honela dio: "Nortasun azpikulturalak epe luzera funtzionatuko balu, gizartean genero-rolen aldaketaren eragina, gaur egun askoz ere nabariagoa izango litzateke".

"Rolling Rolak" proiekturako, hain zuzen generoen rolei buruz hitz egiten duena, Tender Forever gonbidatu zen Bilboko Bilborock aretoan doako kontzertu bat eman zezan. Kontzertu horrekin "Rolling Rolak" luze eta asmo handiko proiektua ospatzen eta amaitzen zen une publiko batekin, eta jendeari bertan parte hartu izana eskertzen zitzaion. Tender Forever-ek aukera bikaina zirudien, izan ere, bere abestiak gustuko izateaz gain, bere hitzak mikropolitikak dira. Kontzertua apartekoa izan zen eta publikoa erabat maitemindu zuen. Amaitzean, berarekin hizketan, galdetu nion ea pentsatzen zuen bere abestiak politikak zirela, nik horrela ikusten ditut-eta. Hain zuzen, Melanie Valera, Tender Forever-en egilea, jakitun da publikoki egindako Beyonce-renganako maitasun-adierazpen ironikoek edo gu izan gintezkeen edo izan nahiko genukeen emakumeenganako historia intimistek, nortasun-eraikuntza berriak sortzen dituztela eta, beraz, distantzia laburretan ospatzen diren gatazkak direla. Tender Forever, Cocorosie, Le Tigre,

dig me out

Peaches, Anthony and the Johnsons eta askoz ere talde gehiagok beren abestien eta eszenaratzeen bitartez beste irudikari batzuk eraikitzen dute, eta horiekin identifikatzen dira, mainstream industriaren arauak ezartzen dutena baino haratago joanez.

Maite batek Cocorosie-ren "Good Friday" abestia eskaini zidan uda levantetarreko ekaitz batean, Tender Forever-en "today it's your birthday" kantatu nion belarrira bere urtebetetze egunean eta telefonoz Tender Forever-en "Heart Broken Forever" partekatu genuen... Maitasunezko abestiak, maitasun jakin bat bezala, sexu jakin bat bezala, praktika politiko eta emantzipatzaileak izan daitezkeenaren uste sendoa dut; alor intimo eta pribatutik eraikita politika publiko eta agerikoa dira, eta honek, era berean, alor pertsonalean eragina du eta aldatu egiten du, eta nortasun pertsonal eta kolektiboen eraikuntzan ere eragina du; hauek, azken helburu bat baino etengabeko prozesu amaigabe bat dira. Eta musikak, prozesu sozial gisa, hori transmititzeko gaitasuna du... baita arteak ere... birus bat... izurri bat balitz bezala.